

IKERGAZTE: NAZIOARTEKO IKERKUNTZA EUSKARAZ.

Bilbo, 2025eko maiatzaren 28tik 30era

IKERTZAILE EUSKALDUNEN SEIGARREN KONGRESUA

www.ueu.eus/ikergazte

ARTIKULU-ESKAERA

Ikertzaile hori,

UEUren eta Kongresuaren Batzorde Zientifikoaren izenean atsegin handiz gonbidatu nahi zaitugu IkerGazte2025 kongresuan parte hartzera.

Bilbon ospatuko den **IkerGazte2025erako, ikertzaile euskaldunen seigarren kongresurako deia** luzatzen dizugu. Azken urteotan izan den ikertzaile gazte euskaldunen kopuruaren hazkundera ikusita, haiek bildu eta egiten duten lanari ikusgarritasun handiagoa ematea da kongresuaren xede nagusia. Gazte diogunean ibilbide zientifikoaz ari gara: tesia bukatzen ari zaren horri edo azken lauzpabost urteotan amaitu duzun horri zuzenduta dago kongresua.

Beraz, ikerkuntza proiektu baten emaitzak ezagutarazi nahi dituzula? Erdu! Tesia bukatzeaz edo bukatu berri duzula eta zure emaitzen berri eman nahi duzula? Zatoz zu ere! Nazioarte mailako ikerkuntzaren berri euskaraz! Ez ezazu aukera gal!

Hautatzen diren artikuluak ISBNdun argitalpen digital batean agertuko dira eta DOI zenbakia esleituko zaie; horretaz gain, jakintza arlo bakoitzeko artikulu bana sarituko da eta Euskal Herriko hainbat argitaletxerekiko lankidetzan zenbait lanen bertsio hedatuak argitaratzeko aukera ere egongo da.

LANEN BIDALKETA

Lanak arlo hauetako batean edo hainbatetan (disziplinartekotasuna landuz) kokatu beharko dira:

- Giza-zientziak eta Arteak: Historia, Hizkuntzalaritza, Filosofia, Arteak, Antropologia ...
- Gizarte-zientziak eta Zuzenbidea: Ekonomia, Enpresa, Zuzenbidea, Soziologia, Kazetaritza, Komunikazioa, Pedagogia, Psikologia ...
- Zientzia zehatzak eta Natur-zientziak: Fisika, Kimika, Geologia, Matematika, Biologia...
- Ingeniaritza eta Arkitektura: Industria-Ingeniaritza, Telekomunikazioak, Informatika, Arkitektura ...

- Osasun zientziak: Medikuntza, Erizaintza, Farmazia, biomedikuntza ...

Atarian aipatu bezala, Gazte ikertzaile kategorian sartuko dira bai doktore-tesian murgilduta dauden horiek, bai eta tesia azken bost urteetan defendatu dutenak (gutxien-gutxienez artikulua lehen egileak bete behar du baldintza hau).

ARTIKULUEN FORMATUA

Artikuluak euskaraz idatzita egongo dira. Jarraian adierazita dagoen egitura bete beharko dute, ebaluatuak izango badira:

- Izenburua eta egiletza
- Laburpena eta hitz gakoak (euskaraz eta ingelesez)
- Sarrera eta motibazioa
- Arloko egoera eta ikerketaren helburuak
- Ikerketaren muina
- Ondorioak
- Etorkizunerako planteatzen den norabidea
- Erreferentziak

Artikuluak oinarrietan zehaztutako ereduari jarraituz eta pdf formatuan bidaliko dira, eta **sei eta zortzi orrialde artekoak** izango dira. Kongresuaren webgunean MSOffice, LibreOfficen eta Latex formatuetan oinarritutako txantiloiak egongo dira eskuragarri.

ARTIKULUAK AURKEZTEA

Artikuluaren bidalketa soilik [easychair](https://easychair.org/) web-plataforma bidez egingo da iragarritako epean barruan, hau da, **urtarrilaren 20tik otsailaren 17ra**.

ARTIKULUEN ONARPENA

Batzorde Zientifikoak erabakiko du bidalitako lanen artean zeintzuk onartu eta baztertuko diren . Arlo bakoitzeko 10 bat lan aukeratuko dira ahozko aurkezpenetarako Eta onartzen diren gainontzekoak poster formatuan aurkeztuko dira. Posterretatik ebaluaziorik onenak dituztenak mikroaurkezpen saioetan aurkeztuko dira.

Berrikusketaren emaitza 2025eko martxoaren 24ko astean bidaliko zaio egileari eta, horrekin batera, poster bidezko aurkezpena edo ahozkoa egin behar duen adieraziko zaio. Zuzenketak egiteko tarte bat ere irekiko da, apirilaren 2ra arte artikuluen bigarren bertsio bat aurkezteko epea izanik.

Ebaluaziorako irizpideak:

- Gaiaren interes orokorra. Lanaren kalitatea eta irismena.
- Ez dira lan espezifikoeziak izango. Kontuan hartu ez dela kongresu espezializatua. Helburu komunikatiboa gailenduko da. Ideien ulergarritasuna.
- Alor bakoitzeko aniztasuna bermatuko duen hautaketa egingo da.
- Euskararen zuzentasuna.
- Zuzentasun formala (formatua).

SARIAK

Jakintza arlo bakoitzean artikulua onenaren saria banatuko da eta beste sari batzuk ere aurreikusten dira.

DATA GARRANTZITSUAK

- Artikuluak bidaltzea: 2025eko otsailaren 17a
- Ebaluazioen erantzunak: 2025eko martxoaren 24a
- Artikuluen azken bertsioa: 2025eko apirilaren 3ra arte
- Izen-ematea: 2025eko apirilaren 7tik maiatzaren 16ra
- Kongresua: 2025eko maiatzaren 28tik 30era.

IZEN-EMATEAK

Lana aurkeztuko duen egileak ikergaztea izan beharko du eta izena eman beharko du (erregistratuta edo matrikulatuta egon beharko du). Ikergetzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du. Kontuan hartu artikulua bidaltzeak ez dakarrela automatikoki erregistratua egotea. Izen(a) ematea ezinbestekoa da, eta honetarako matrikula ordaindu behar da.

HARREMANETARAKO: ikergazte@ueu.eus